



AGINDUA, INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUARENA, 2016ko INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ezartzen duenez, nahitaez eduki behar da diru-laguntzen Plan Estrategiko bat, eta bertan identifikatu behar dira, sailen diru-laguntzei dagokienez, diru-laguntzen aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburu eta ondorioak, diru-laguntza horiek emateko beharrezko epean, aurreikusten diren kostuak eta haien finantzaketa-iturria, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete behar direlarik.

Agindu hori betetzeko, plan hau tresna bat izango da sailaren eta hari atxikitako erakundeen politiken plangintza egiteko, eta lurralde-politika orekatu eta jasangarri bat sustatzea izango du helburu, baita ingurumen-politika arduratsu bat eta erabat jasangarriak diren egitura batzuk eta garraio-politika bat ere, legegintzaldi honetarako 2012-2106 Gobernu Programaren konpromisoen barruan lerrotutakoak.

Plan hau egiteko, aurreko paragrafoan definitutako eta lortu nahi diren interes publikoak aztertu dira eta plan honen indarraldian horretarako eskuragarri dauden baliabideekin erkatu dira. Era horretan bermatzen da eraginkortasun-maila eta efizientzia-maila areagotzea, baita gure jardun-eremuan gardentasuna indartzea ere.

Kontuan izanda aurrekontu-ekitaldi bakarra geratzen dela X. Legegintzaldia amaitzeko, sailak denboraldi horretarako duen diru-laguntzetarako politika bildu nahi du, hurrengo legegintzaldian sailak izango duen plangintza-ahalmena ez baldintzatzeko.

Ohartarazi behar da, dena den, planak izaera pragmatikoa duela 2012-2016 aldiko Gobernu Programaren jardunen esparru orokorraren barruan, eta hori horrela, haren edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta haren eraginkortasuna diru-laguntzen lineak praktikan jartzeak baldintzatzen du, egungo aurrekontu-bitartekoak kontuan izanda, besteak beste.

Horrenbestez, sailaren gainerako jardunen antzera, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoak honako hauek ditu erronka edo ardatz estrategiko nagusitzat:

- Lurralde-politika orekatu eta jasangarria
- Ingurumen-politika arduratsua
- Azpiegitura jasangarri batzuk eta garraio-politika jasangarria

Azaldutakoa kontuan izanik, Gobernu Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren 2012ko abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan esleitutako eskumenak egikaritura, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Eranskin gisa ageri den “Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Diru-laguntzen 2016rako Plan Estrategikoa” onartzea.

Bigarrena.- Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak eta hari atxikitako erakundeek ematen dituzten diru-laguntzak plan horretan ezarritakoari egokitu beharko zaizkio, eta egungo aurrekontu-bitartekoek baldintzatuko dute betiere.

Planean aurreikusten ez den edozein diru-laguntza jardunek espedientean justifikatu beharko du bertan bildu ez izana, eta egindako aurrekontu-aurreikuspenak berregokitzeko eskatuko du.

Hirugarrena.- 2017ko lehen seihilekoaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.8 artikulua arabera egiten den diru-laguntza programen ebaluazioaren barruan, planaren betetze-maila ebaluatuko da. Egindako balorazioa oinarri izango da diru-laguntzen hurrengo plana egiteko.

Ana Oregi Bastarrika
INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUA
Elektronikoki stua.

ERANSKINA

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA-2015-2016 ALDIA

1.- Planaren justifikazioa.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ezartzen duenez, nahitaez eduki behar da diru-laguntzen Plan Estrategiko bat, eta bertan identifikatu behar dira, sailen diru-laguntzei dagokienez, diru-laguntzen aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburu eta ondorioak, diru-laguntza horiek emateko beharrezko epean, aurreikusten diren kostuak eta haien finantzaketa-iturria, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete behar direlarik.

Agindu hori betetzeko sailek izan beharreko jarduna bideratzeko, 1/2015 zenbakiko zirkularra onartu du Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, diru-laguntzen plan estrategikoak egiteari buruzkoa, zenbait neurri biltzen dituena plan horiek egin eta onartzeari begira.

Zirkular hori betetzeko egin da plana, bertan ezarritako edukiarekin eta diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eskatutakoarekin.

2.- Aplikazio-eremua.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eta hari atxikitako erakundeen diru-laguntza jardura guztia biltzen du planak: zuzenbide pribatuko URA eta ETS erakunde publikoak, eta IHOBE, ET, EKP eta ZKP erakunde publikoak. Dena den, erakunde publiko horietako batzuk ez dira ezein diru-laguntza jardun konkreturen arduradun gisa identifikatuta ageri, ez baita diru-laguntzarik ematen aginduta daukaten zereginaren jardunean.

Planaren denbora-jokalekua X. Legegintzaldia amaitzeko geratzen den aurrekontu-ekitaldia da. Diru-laguntza programa guztiak identifikatzen dituzten fitxek 2016an garatu beharreko diru-laguntza jardunen aurreikuspenak jasotzen dituzte, hasteko.

Dena den, aurrekontuetan urte anitzeko partidak dauzkaten diru-laguntza programetan, aurrekontu-hornidura horiek biltzen duten denbora-jokalekua bildu da. Kontuan izan da horretarako Euskadiko Aurrekontu Erregimenaren Legearen 30. artikuluan ezarritako konpromiso-kredituen loturako mekanika berak ahalbidetzen duela alor horretako plangintza legegintzaldia baino zabalagoa den denbora-jokaleku

bat uztartzea, hurrengo legegintzaldian sailaren buru izango den zuzendaritza-taldeak plangintza hori aldatzeko izango duen gaitasunarekin.

Diru-laguntza programa guztiei dagozkien fitxek 2015ari dagozkion aurrekontu-hornidurak ere biltzen dituzte, informaziorako eta bilakaera aztertzea ahalbidetzeko, programak egikaritzeari lotutako zenbatekoak kontuan izanda.

3.- Proiektuaren edukia

Aurreikusitako diru-laguntza jardunak txertatzen diren konpromisoak biltzen ditu planak, betiere gobernu-programaren konpromisoari lotutako ardatzetako bakoitzari jarraikiz.

Ondoren, identifikatu egiten ditu, laburpen gisa, diru-laguntza programa guztien egikaritzarako aurreikusitako kostuen datu globalak, programa horiek sailak bere egituran dituen antolakunde-unitateekin lotuta.

Azkenik, planak fitxa bat biltzen du diru-laguntza programentzat, eta bertan bilduko ditu helburuak, ekintzak eta adierazleak, aurreikusitako denbora-jokalekuarekin, helburu dituen sektoreak, diru-laguntzak emateko prozedura, beharrezkoak diren aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publikoaren ehunekoa.

4.- Ardatz estrategikoen eta helburuen identifikazioa

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2012-2016 aldiko Gobernu Programaren konpromisoekin lerrokatzen da legegintzaldi honetarako, eta, konpromiso horien barruan, sailaren jardun-eremuak erantzuten dienekin, honako hauekin, hain zuzen ere:

- Lurralde-politika orekatu eta jasangarria
- Ingurumen-politika arduratsua
- Azpiegitura jasangarri batzuk eta garraio-politika jasangarria

4.1.- Lurralde-politika orekatu eta jasangarria

Eremu honetan sailak bultzatutako politika publikoaren helburu nagusietako bat datozen belaunaldiei lurralde atseginago, jasangarriago eta garapen ekonomiko handiagoko bat uztea da eta horretarako, hiri eta herri atseginagoez, osasungarriagoez eta erakargarriagoez gozatzea, lana eta bizitokia hurbiltzea, hobeki zainduta egonik guztiontzat irisgarriagoa den ingurumen-ingurua edukitzea, gure enplegu- eta etxebizitza-aukerak hobetzea eta azpiegitura eraginkorrakoak eta integratuagoak izatea ahalbidetuko duen lurralde-antolamendua garatzean egingo da lan. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Batzordearen bidez, koordinazio- eta arrazionaltasun-irizpideak ezartzea bilatzen da herritar guztiei bizi-kalitate bera eskaintzeko.

Horretarako, sailaren jarduna honako helburu orokor hauetara bideratzen da eremu horretan:

1. Lurralde-oreka
2. Paisaiari balioa ematea
3. Pasaiaiko badiaren biziberritzea sustatzea

Sailaren ardatz estrategiko honen barruko diru-laguntzetarako politikak hiru helburuei erantzuten die.

Ilido horretan, lurralde-orekaren helburua lortzeko bidean, lurralde-garapen orekatu eta jasangarri bat lortzera eta lurralde jasangarriago bat diseinatzeko lagungarriak diren lurzorua erabiltzeko eta plangintzako politikak sustatzera bideratuta, biltzen dira udalei emandako diru-laguntzak kartografia egiteko.

Bestalde, paisaiari balioa emateko helburuaren barruan, diru-laguntzetarako politika EAEko paisaiak lehengoratzeko eta babesteko bultzadara bideratzen da, baita paisaia bereziak ikertzera, zabaltzera eta haiei balioa ematera ere.

Bestalde, ahalegin berezia egingo da Pasaiaiko badia biziberritzeko proiektuak martxan jartzeko dagozkion erakundearteko lankidetzak-hitzarmenen esparruan.

4.2.- Ingurumen-politika arduratsua

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarentzat, ingurumenaren kontzeptuak giza bizitza baldintzatzen duten alderdi guztiak biltzen ditu, ez soilik alderdi naturalak, baita alderdi sozialak, ekonomikoak eta kulturalak ere. Gaur egun ingurumenari buruz hitz egitea gure bizi-jokalekuari buruz hitz egitea da, gure jarduerak garatzen ditugun testuinguruari buruz, baldintzatzen gaituenari eta, aldi berean, guk baldintzatzen dugunari buruz.

Ikuspuntu horretatik, 1992. urtean Nazio Batuen Konferentzian erabakitako Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rio de Janeiroko Deklarazioaren (berriki berretsi da: Rio+20) lehen printzipioan jada ezarri zenez, "Garapen jasangarriarekiko kezken oinarria gizakiak dira. Bizitza osasungarrirako eta produktiborako eskubidea dute, naturarekin harmonian". Hori da, hain zuzen ere, ingurumen-politikaren helburu orokorra oro har eta eremu horretako diru-laguntzetarako politikaren helburu espezifikoa: pertsona guztientzako bizitza duin baterako eskubidea, gaurkoentzat eta biharkoentzat, kalitatezko ingurune batean. Helburu horretan, jasangarritasunaren kontzeptuaren funtsezkoena biltzen da.

Saila jabetzen da ingurumen-politikak, zeharkakoa denez, erantzunkidetasunean oinarrituta egon behar duela. Horretarako, administrazio guztien esku-hartze koordinatua ez ezik, agente sozialen, agente ekonomikoen, zientzia- eta teknologia-alorreko agenteen eta batez ere, herritarren parte-hartzea ere beharrezkoa da.

Horretarako, sailaren jarduna honako helburu orokor hauetara bideratzen da eremu horretan:

1. Ekosistemak zaintzea
2. Ingurumen-kalitatea hobetzea
3. Baliabideen eta hondakinen kudeaketa jasangarria
4. Sektore publiko-pribatuaren eta herritarren erantzunkidetasuna
5. Ingurumen-administrazioa arintzea eta sinplifikatzea

Helburu orokor horien barruan, diru-laguntzen politika honako helburu hauen barruan dago:

Ekosistemak zaintzea

Helburu hau betetzeari erantzuten diote, besteak beste, EAEren natura-kapitala zaintzeko eta leheneratzeko ekimenek ingurune naturalak zaintzeko eta ingurumena babesteko premisen arabera, Biodibertsitate Estrategia garatzea, EAEko Biodibertsitate Estrategia garatzea eta klima-aldaketa arintzea, egokitzapen-ekintzak

garatuz eta karbono-hustulekuen garapena sustatuz. Ekimen horien barruan, sailaren diru-laguntzetarako politika klima-aldaketaren eremuko proiektu espezifikoen garapenera bideratuta dago, natura-ondarea zaintzeko jardunen finantzaketara, eta eremu horretan jakintza sortzeko proiektuetarako.

Ingurumen-kalitatea hobetzea

Sailaren helburu estrategiko bat izanik, airearen kalitatea hobetzera eta kutsadura akustikoa murriztera bideratutakoa, besteak beste, ingurumen-inbertsioetarako enpresentzako diru-laguntza programa produkzio-sistemetan erabilgarri dauden teknologia onenak sartzera bultzatzen duten EAEko enpresetan ingurumen-inbertsioak sustatzera bideratuta dago, *kutsatzen duenak ordain dezala* printzipioaren aplikazio efektiboa eta ingurumen-kostuen erabateko internalizazioa bilatuz

Sektore publiko-pribatuaren eta herritarren erantzukidetasuna

Ingurumenean eragina duten politika publikoen koordinazioa gehitzeko, sailen artean zein erakundeen artean, sektore pribatuaren integrazioa eta herritarren parte-hartzea bultzatuz, zenbait Diru-laguntzaren linea kudeatzen dira ingurumen-boluntariotzaren jarduerak, Eskolako Agenda 21 programaren garapena eta garapen jasangarria sustatzen duten toki-erakundeek ekintzak bultzatzeko.

4.3.- Azpiegitura jasangarri batzuk eta garraio-politika jasangarria.

Garraioa gizartearen elementu estrukturala da, ekitate sozialerako, garapen sozio-ekonomikorako, lehiakortasunaren hobekuntzarako, bizi-kalitaterako eta gizarte- eta lurralde-kohesiorako.

Eremu horretako garraio-politika eta diru-laguntzetarako politika, pertsona eta ondasunen mugikortasun-premiei erantzuteko bideratuta dago, eta al bait modurik jasangarrienean eta gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-errentagarritasun handienarekin egiteko.

Garraio-azpiegituren gainean garatzen da garraio-politika, eta lehentasuntzat garraibide jasangarrienak sustatzea eta Europarekin trenbide-lotura garatzea ditu, korridore atlantikoaren bidez azken kasu horretan.

EAEk, gainera, mugikortasun handia izaten du, bere barne-eskaritik zein ipar-hego kontinentaleko eta ekialde-mendebalde penintsularreko iragaite-mugikortasunetik

datorrena. Horregatik, garraio jasangarriko erantzunekin kudeatu behar da mugikortasuna, garraio-sistemaren oreka modal handiagoa lortuz, baita garraio seguru, prebentziozkoa eta kalitatezkoa ere.

Hedadura handiko mugikortasun-esparru horretan garatuko da EAEko zentro logistikoetan garraio multimodalak eskaintzen duen potentzial ikaragarria, lehiakortasun ekonomikoko faktore gisa

Horrenbestez, honako hauek dira eremu honetako helburu orokorrak:

1. Mugikortasun jasangarria
2. Pertsonen eta salgaien garraio-politika
3. Trenbide-sare berria, Euskal "Y" sarea
4. Aireportu-eredu integratua
5. EAEko portuak hobetzea
6. Plataforma logistikoak
7. Euskadi-Akitania komunikazioa

Helburu orokor horien barruan, diru-laguntzetarako politika honako hauen barruan dago, ondoren zehazten diren helburuen betetzeari erantzunez:

Mugikortasun jasangarria

Laguntza eskainiz errepideko garraio-zerbitzu seguru, fidagarri eta eraginkor bat egiteko, trenbide-sarea osatuta, eta errepideko garraio-sektoreak dimentsionamendu egokia izan dezala bultzatuz, merkatuan lehiatzeko moduan, garraiolariak jarduera uzteko diru-laguntza programak artikulatzen ditu sailak, eta laguntzak ere bai asoziazionismoa bultzatzeko eta teknologia berriak eta kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzeko.

Lanbidea uzteko laguntza-programaren bidez errepideko salgai eta bidaiarien garraio publikoaren sektoreko garraiolari edadetuek beren lanbidea utz dezatela bultzatu nahi da.

Era berean, beharrezkoa da garraio-sektoreko elkarte profesional eta enpresa-elkarteen jarduerak eta ekimenak sustatzea, eta horretarako asoziazionismoa sustatzeko programa atxikitzen da.

Eta azkenik, salgai eta bidaiarien garraio publikoko EAEko enpresetan teknologia berriak eta segurtasuna, eta kalitatea kudeatzeko sistema eta ingurumen-sistemak ezartzeko laguntza-programek duten helburua da erabiltzaileari begira segurtasun, kalitate, gardentasun eta arintasun handiagoa lortzea zerbitzua ematean eta, gainera, enpresa horiek lehiakortasuna gehitzen dute.

Pertsonen eta salgaien garraio-politika

Inplikaturako agente guztien artean garraio-politikaren koordinazioa eta adostasuna, eta mugikortasun- eta zerbitzu-eskaria kudeatzeko garraio jasangarriko informazio-sistemen ezarpena lortze aldera, sailaren diru-laguntzetarako politikak honako helburuak hauek lortzera bideratuta dauden jarduera duten erakunde asoziatiboak babestu nahi ditu: EAEko Ontzi-jabeen Elkarteak, Euskal Herriko Itsas Foroa, Eusko-Aquitaine Elkarteak, Giport, Uniport, etab. Aldi berean, baliabideak bideratzen ditu itsas garraioaren alorreko irakaskuntza-, ikerketa- eta zabalkunde-jarduerak sustatzera, unibertsitate-eremuarekin lankidetzan.

Era berean, laguntzak bideratzen dira EAEko garraiobide guztientzako txartel bakarra ezartzeko, Bat-Barik-Mugi txartelen erabilera ahalbidetzen duten operadore berrien gehitze progresiboaren bidez.

Aireportu-eredu integratua

Helburu hori betetzeko, sailaren diru-laguntzetarako politika Euskal Autonomia Erkidegoko aireportuak sustatzeko eta garatzeko eratutako elkarteekin lankidetzan aritzera bideratuta dago.

EAEko portuak hobetzea

Helburu honetan bildutako diru-laguntza jarduerak Pasaiako portua biziberritzea dute ardatz, portuaren ereduan, bideragarritasunean eta kudeaketan sakontzen duen azterketa bat ahalbidetuz, ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasunaren ikuspegitik begiratuta.

Plataforma logistikoak

Garraiobide guztiak bilduko dituen arlo logistiko intermodalen sare bat ezartzeko helburuaren barruan, sailaren diru-laguntzetarako politika Salgaien Zentral Integralak eta ibilgailu astunetarako aparkalekua sustatzera, prestatzera eta ustiatzera bideratuta dago, Basque Country Logistics markara eta Mugikortasun eta Logistika Klusterrak eta Logistikako Euskal Erakundeak garatutako jarduerara.

Bestalde, trenbide-azpiegituren interkonexioa sendotzeko eta portu-azpiegitura handiekin baterako ekintzak bultzatuz, lankidetzan aurreikusten da Arasur plataforma logistikoan trenbide-terminal bat eraikitzeko.

5.- Diru-laguntzen programen laburpena

Ardatz estrategikoa: Lurralde-politika orekatu eta jasangarria

Helburu estrategikoa: - Lurralde-oreka

Diru-laguntzaren linea	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa
Udalaren informazio geografikoaren kalitatea hobetzea "Udalen Informazio Geografikoa"	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza	200.100
"Andrés de Urdaneta" Euskal Geografi Elkargoa	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza	30.000
GUZTIRA		230.100€

Helburu estrategikoa: - Paisaiari balioa ematea

Diru-laguntzaren linea	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa
Hitzarmena UPV/EHU Lurraldeari, paisaiari eta ondareari buruzko katedra	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza	225.000
Diru-laguntzak udalentsat jardunak garatzeko paisaiaren arloan Paisaiaren Europako Hitzarmenaren arabera	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza	300.000
Diru-laguntza Añanako Gatz Harana Fundazioarentzat paisaiari buruzko jarduerak garatzeko	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza	150.000
GUZTIRA		675.000 €

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsua

Helburu estrategikoa: **1- Ekosistemak zaintzea**

Diru-laguntzaren linea	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa
Diru-laguntzak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen agenteentzat proiektu espezifikoak garatzeko klima-aldaketaren eremuan	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza	100.000
Konpentsazioa EKPZ aplikatuz Urdaibain	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza	200.000
Diru-laguntza Aranzadirentzat Eratzunketa Bulegorako	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza	280.000
Diru-laguntza Aranzadirentzat diru-laguntza germoplasma bankua atxikitzeko	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza	80.000
Laguntzak EAEko lurraldea zaintzeko hitzarmenetan jasotako natura-ondarea zaintzeko jarduerak finantzatzeko	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza	160.000
Diru-laguntzak natura-ondarea babesteari buruzko jakintza sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzat	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza	160.000
Diru-laguntza Unesco Etxearentzat natura-ondarearen eta ingurumen-hezkuntzaren nazioarteko sustapenerako	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza	40.000
Diru-laguntza Unesco Katedrarentzat garapen jasangarrirako eta ingurumen-hezkuntzarako	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza	75.000
GUZTIRA		1.095.000 €

Helburu estrategikoa: **2.- Ingurumen-kalitatea hobetzea.**

Diru-laguntzaren linea	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa
Enpresentzako diru-laguntzak ingurumen-inbertsioetarako	Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	1.310.000
GUZTIRA		1.310.000 €

Helburu estrategikoa: **4.- Sektorre publiko-privatuaren eta herritarren erantzunkidetasuna.**

Diru-laguntzaren linea	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa
Diru-laguntzak ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzat	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza	112.000
Diru-laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzat Eskolako Agenda 21 programa garatzeko	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza	600.000
Diru-laguntzak udalentsat, mankomunitateentzat, beste toki-erakunde batzuentzat, toki-erakunde autonomoentzat, toki-garapeneko agentzientzat eta garapen jasagarria sustatzen duten ekintzak sustatzen dituzten tokiko merkataritza-sozietateentzat	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza	1.850.000
GUZTIRA		2.562.000 €

Ardatz estrategikoa: **Azpiegiturak eta garraio-politika jasangarria.**

Helburu estrategikoa: **Mugikortasun jasangarria.**

Diru-laguntzaren linea	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa
Garraiolari-jarduera uztea	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	175.000 €
Laguntzak teknologia berriak ezartzeko	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	75.000 €
Laguntzak kalitatea kudeatzeko sistema bat ezartzeko	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	75.000 €
Asoziazionismoa sustatzea.	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	75.000 €
GUZTIRA		400.000 €

Helburu estrategikoa: **Pertsonen eta salgaien garraio-politika.**

Diru-laguntzaren linea	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa
Diru-laguntza Deustuko Unibertsitatearentzat. Itsasoko eta portuko enpresak kudeatzeko masterra	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza - Portuak	75.000 €
Diru-laguntza EAeko Ontzi-jabeen Elkartearentzat	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza - Portuak	40.000 €
Diru-laguntza EAeko Ontzi-jabeen Elkarteari Short Sea Shipping sistema garatzeko	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza - Portuak	40.000 €
Diru-laguntza EHUrentzat "El Saltillo" ontziaren mantentze-lanetarako	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza - Portuak	30.000 €
Diru-laguntza Euskal Herriko Itsas Foroarentzat	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza - Portuak	20.000 €
Diru-laguntza Eusko-Aquitaine Elkartearentzat	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza - Portuak	20.000 €
Diru-laguntza Giport elkartearentzat	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza - Portuak	20.000 €
Diru-laguntza Uniport elkartearentzat	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza - Portuak	20.000 €
Diru-laguntza Merkataritzako Ontzidiko Kapitainen Bizkaiko Elkartearentzat	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza - Portuak	3.000 €
Diru-laguntza Itsas Makineria Langileen Elkartearentzat	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza - Portuak	3.000 €
Diru-laguntza Euskal Herriko Unibertsitatearentzat <i>Revista del transporte marítimo, terrestre y aéreo</i> aldizkarirako	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza - Portuak	12.000 €

Hitzarmena Panamako Universidad Santa María de la Antigua ikastegiarekin	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza - Portuak	12.000 €
Diru-laguntzak itsas sektoreko elkarreentzat (Sail in Festival)	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza - Portuak	10.000 €
Txartel bakarraren ezarpena	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	1.020.000 €
Diru-laguntza Gipuzkoako Garraio Agintaritzarentzat	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	1.400.000
GUZTIRA		2.725.000 €

Helburu estrategikoa: **Aireportu-eredu integratua.**

Diru-laguntzaren linea	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa
VIA aireportu-sustapena	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	75.000 €
BIA aireportu-sustapena	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	75.000 €
Ortizibia aireportu-sustapena	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	75.000 €
GUZTIRA		225.000 €

Helburu estrategikoa: **Portuak hobetzea**

Diru-laguntzaren linea	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa
Pasaiaiko badia biziberritzea.	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza	4.000.000 €
GUZTIRA		4.000.000 €

Helburu estrategikoa: **Plataforma logistikoak.**

Diru-laguntzaren linea	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa
Trenbide-terminala Arasur plataforma logistikoan	Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza	3.000.000 €
Diru-laguntza Apakabisarentzat	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	163.800 €
Diru-laguntza Logistikako Euskal Erakundearentzat	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	140.000 €
Diru-laguntza Mugikortasun eta Logistika Klusterrarentzat	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	25.000 €
Basque Country Logistics markaren sustapena	Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	80.000 €
GUZTIRA		3.408.800 €

Ardatz estrategikoa: Lurralde-politika orekatu eta jasangarria

Helburu estrategikoa:	Lurralde-oreka
Organoa:	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza
Programa:	Lurralde-antolamendua (43130)
Diru-laguntzaren linea: Udalaren informazio geografikoaren kalitatea hobetzea "Udalen Informazio Geografikoa".	

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2015	2016
4. helburua: Lurraldeko informazio geografikoa.		
3. ekintza: Kartografia, ortoargazkiak eta azpiegitura geodesikoa. Udalei diru-laguntza emateko agindua udalaren informazio geografikoa produzitzeko eta haren kalitatea hobetzeko		
8. adierazlea (2015) - 9: Udal kopurua	25	25

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko				
	2015		2016	
	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua
7. kapitulua	200.100	2	200.100	2

Helburu duten edo dituzten sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituzten sektoreak	Udalak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehiaketa / Agindua

Ardatz estrategikoa: Lurralde-politika orekatu eta jasangarria

Helburu estrategikoa:	Lurralde-oreka
Organoa:	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza
Programa:	Lurralde-antolamendua (43130)
Diru-laguntzaren linea:	"Andrés de Urdaneta" Euskal Geografi Elkargoa

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2015	2016
4. helburua: Lurraldeko informazio geografikoa		

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko				
	2015		2016	
	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua
4. kapitulua	30.000	1	30.000	1

Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituzten sektoreak	"Andrés de Urdaneta" Euskal Geografi Elkargoa
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Diru-laguntza izenduna / Agindua

Ardatz estrategikoa: Lurralde-politika orekatu eta jasangarria

Helburu estrategikoa:	Paisaiari balioa ematea
Organoa:	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza
Programa:	Lurralde-antolamendua (43130)
Diru-laguntzaren linea:	Hitzarmena UPV/EHU Lurraldeari, paisaiari eta ondareari buruzko katedra

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2015	2016
2. helburua: Paisaiari balioa ematea		
2. ekintza: Paisaiari buruzko Ekintza Planak egikaritzea Lurraldearen katedra eta paisaia EHUrekin lankidetzan		
1. adierazlea: Paisaia Kudeatzeko Master Ofizialeko ikasleen kopurua.		10
2. adierazlea: Doktoretza egin aurreko kontratuen kopurua		3
3. adierazlea: jarraipen-batzordearen bileren kopurua		5

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko				
	2015		2016	
	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua
4. kapitulua			225.000	3

Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak	Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Diru-laguntza izenduna/Hitzarmena

Ardatz estrategikoa: Lurralde-politika orekatu eta jasangarria

Helburu estrategikoa:	Paisaiari balioa ematea
Organoa:	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza
Programa:	Lurralde-antolamendua (43130)
Diru-laguntzaren linea:	Diru-laguntzak udalentsat jardunak garatzeko paisaiaren arloan Paisaiaren Europako Hitzarmenaren arabera

Helburuak, ekintzak eta adierazleak	2015	2016
2. helburua: Paisaiari balioa ematea		
2. ekintza: Paisaiari buruzko Ekintza Planak egikaritzea Erakundeei diru-laguntza emateko agindua	9	34
1. adierazlea: Aurkeztutako eskabide kopurua:	7	12
2. adierazlea: Emandako diru-laguntzen kopurua	70.000	94.200
3. adierazlea: 94.200 Eraginpeko biztanleak	40.000	25.000
4. adierazlea: Kostua eurotan plan bakoitzeko		

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko				
	2015		2016	
	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua
7. kapitulua	300.000	2	300.000	2

Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak	Udalak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehiaketa / Agindua

Ardatz estrategikoa: Lurralde-politika orekatu eta jasangarria

Helburu estrategikoa:	Paisaiari balioa ematea
Organoa:	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza
Programa:	Lurralde-antolamendua (43130)
Diru-laguntzaren linea:	Diru-laguntza Añanako Gatz Harana Fundazioarentzat paisaiari buruzko jarduerak garatzeko

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2015	2016
2. helburua: Paisaiari balioa ematea		

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko				
	2015		2016	
	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua
4. kapitulua			150.000	1

Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak	Añanako Gatz Harana Fundazioa
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Diru-laguntza izenduna / Agindua

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsua

1. helburu estrategikoa:	Ekosistemak zaintzea
Organoa:	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Programa:	Ingurumenaren babesa (444210)
Diru-laguntzaren linea:	Diru-laguntzak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen agenteentzat proiektu espezifikoak garatzeko klima-aldaketaren eremuan

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2015	2016
1. helburua: Ekosistemak zaintzea		

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko				
	2015		2016	
	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua
7. kapitulua	200.000	1	100.000	1

Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agenteak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehiaketa / Agindua

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsua

1. helburu estrategikoa:	Ekosistemak zaintzea
Organoa:	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Programa:	Ingurumenaren babesa (444210)
Diru-laguntzaren linea:	Konpentsazioa EKPZ aplikatuz Urdaibain

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2015	2016
1. helburua: Ekosistemak zaintzea		

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko				
	2015		2016	
	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua
4. kapitulua	200.000	1	200.000	1

Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	EKPZk eraginpean hartutako pertsona jabeak edo titularrak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsua

1. helburu estrategikoa:	Ekosistemak zaintzea
Organoa:	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Programa:	Ingurumenaren babesa (444210)
Diru-laguntzaren linea:	Diru-laguntza Aranzadirentzat Eraztunketa Bulegorako

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2015	2016
1. helburua: Ekosistemak zaintzea		
2. ekintza: Biodibertsitatearen esparru estrategikoa		
3. adierazlea (2. adierazlea 2015ean): kontratuak edo hitzarmenak erakunde espezializatuekin Biodibertsitateari eta Natura Ondareari buruzko jakintza hobetzeko	7	7

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko				
	2015		2016	
	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua
4. kapitulua	65.122	1	280.000	4

Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Aranzadi
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Diru-laguntza izenduna / Agindua

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsua

1. helburu estrategikoa:	Ekosistemak zaintzea
Organoa:	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Programa:	Ingurumenaren babesa (444210)
Diru-laguntzaren linea:	Diru-laguntza Aranzadirentzat diru-laguntza germoplasma bankua atxikitzeko

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2015	2016
1. helburua: Ekosistemak zaintzea		
2. ekintza: Biodibertsitatearen esparru estrategikoa		
3. adierazlea: kontratuak edo hitzarmenak erakunde espezializatuekin Biodibertsitateari eta Natura Ondareari buruzko jakintza hobetzeko	7	7

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko				
	2015		2016	
	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua
4. kapitulua			80.000	4

Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Aranzadi
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Diru-laguntza izenduna / Agindua

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsua

1. helburu estrategikoa:	Ekosistemak zaintzea
Organoa:	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Programa:	Ingurumenaren babesa (444210)
Diru-laguntzaren linea:	Laguntzak lur-zaintzailatza akordioetan sartutako natura-ondarea aktiboki zaintzeko jarduerak finantzatzeko EAEn

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2015	2016
1. helburua: Ekosistemak zaintzea		
2. ekintza: Biodibertsitatearen esparru estrategikoa		
5. adierazlea (4. adierazlea 2015ean): diru-laguntzak lurraldea zaintzeko jardueretarako natura-ondarea kontserbatzeko	8	8

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko				
	2015		2016	
	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua
4. kapitulua	180.000	2	160.000	2

Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak, izaera pribatukoak, lurraldearen zaintza-erakunde gisa jarduten dutenak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehiaketa / Agindua

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsua

1. helburu estrategikoa:	Ekosistemak zaintzea
Organoa:	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Programa:	Ingurumenaren babesa (444210)
Diru-laguntzaren linea:	Diru-laguntzak natura-ondarea babesteari buruzko jakintza sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzat

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2015	2016
1. helburua: Ekosistemak zaintzea		
2. ekintza: Biodibertsitatearen esparru estrategikoa		
6. adierazlea (4. adierazlea 2015ean): diru-laguntzak natura-ondarea babesteari buruzko jakintza sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzat	8	10

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko				
	2015		2016	
	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua
4. kapitulua	180.000	2	160.000	2

Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Ingurumena defendatzeko elkarte edo bestelako erakunde pribatuak
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Lehiaketa / Agindua

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsua

1. helburu estrategikoa:	Ekosistemak zaintzea
Organoa:	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Programa:	Ingurumenaren babesa (444210)
Diru-laguntzaren linea:	Diru-laguntza Unesco Etxearentzat natura-ondarearen eta ingurumen-hezkuntzaren nazioarteko sustapenerako

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2015	2016
1. helburua: Ekosistemak zaintzea		
2. ekintza: Biodibertsitatearen esparru estrategikoa		
3. adierazlea (2. adierazlea 2015ean): kontratuak edo hitzarmenak erakunde espezializatuekin Biodibertsitateari eta Natura Ondareari buruzko jakintza hobetzeko	7	7

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko				
	2015		2016	
	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua	Zenbatekoa €	Urtesari kopurua
4. kapitulua	50.000	1	40.000	1

Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Unesco Etxea
Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Diru-laguntza izenduna / Agindua

Ardatz estrategikoa: Ingurumen-politika arduratsua

1. helburu estrategikoa:	Ekosistemak zaintzea
Organoa:	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Programa:	Ingurumenaren babesa (444210)
Diru-laguntzaren linea:	Diru-laguntza Unesco Katedrarentzat garapen jasangarrirako eta ingurumen-hezkuntzarako

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2015	2016
1. helburua: Ekosistemak zaintzea		
2. ekintza: Biodibertsitatearen esparru estrategikoa		
3. adierazlea (2. adierazlea 2015ean): kontratuak edo hitzarmenak erakunde espezializatuekin Biodibertsitateari eta Natura Ondareari buruzko jakintza hobetzeko	7	7

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko				
	2015		2016	
